
BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK ERAMATEKO ETA GERO HORIEK ZAINZTEKO ZERBITZUA EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

Udalbatzarrak 1999.05.03an onartua

Arrasateko Udalak araudi hau ezarriko du, bide publikotik ibilgailuak eraman eta gero horiek zaintzeko zerbitzua emate aldera, hauen babesean: Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.b artikuluan xedatutakoa, Trafikoa, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko 339/1990 Legearen testu artikulatua berritzen duen 5/1997 Legea, 339/1990 zk.ko testu artikulua berarena, 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena, eta gaiari buruz indarrean dagoen gainerako arauak.

I.- ORDAINARAZTEAREN XEDEA

1. Artikulua.

Hauxe da Ordenantza honetan arautzen den ordainaraztearen xedea:

A.- Ibilgailua bide publikoan jaso eta hartarako prestatutako auto biltegira eramateko zerbitzua ematea. Honelakoetan egingo da hori:

a) Ibilgailu hori arriskugarria bada, ibilgailu edo oinezkoen zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari kalte larriak sortzen badizkie, edo herri ondarea kaltetzen badu, eta hura bertan bera utzi duela zentzuz susmatu ahal bada.

b) Istripua izan eta aurrera egitea galarazten badu.

c) Hutsuneak dituelako ibilgetu badute.

d) Ibilgetu eta arau-hausleak behin eta berriro adierazten badu ez duela isunaren zenbatekoa ordainduko edo hura garantizatuko.

e) Udal agintzaritzak ordu mugatuko estazionamendu moduan egokitutako lekuetan baimena ematen duen bereizgarria jarri gabe estazionaturik jarraituz gero, edo ordaindutako denbora halako bi pasatzen bada, Udal Ordenantzaren ezarritakoaren arabera.

f) Zirkulatzeko edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bakarrik erreserbatutako bideetan edo bide zatietan estazionaturik egonez gero.

g) Aplikatu beharrekoa den araudiak ezarritako gainerako inguruabarretako batean egonez gero.

B.- Bide publikotik eramandako edo edozein arrazoi dela udal auto-biltegian dauden ibilgailuak zaintzea.

II.- ORDAINZTEKO OBLIGAZIOA

2. Artikulua.

Ibilgailua bide publikotik eramateko operazioa hasten den unean sortzen da ordaintzeko obligazioa. Eta hori hala izango da garabia ibilgailu ondoan dagoenean, nahiz eta oraindik ere hasi ez ibilgailua eramaten.

III.- ORDAINZERA BEHARTURIK DAUDEN PERTSONAK

3. Artikulua.

Beharturik daude ordaintzera zerbitzua eragin duten pertsonak; halakotzat hartuko dira eramandako ibilgailuetako gidariak, eta bestek ezean, haietako titularrak, erabilera ez-legitimoaren kasuetan izan ezik.

IV.- GRABAMEN OINARRIAK

4. Artikulua.

Ordainarazte honen oinarritzat hartuko dira: zerbitzu unitatea eta zein ibilgailu mota den eramandakoa.

V.- TARIFAK

5. Artikulua.

Tarifa honen arabera sortuko dira tasak:

A - Ibilgailuak eramateagatik:

1.- Bizikletak, motozikletak, trizikloak, motogurditxoak, eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, bakoitzak: 2.000 PTA.

2.- Turismo automobilak eta furgonetak, kamioneta eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, 1.000 kg. arteko tonelajeaz. Ibilgailu bakoitzak: 6.000 PTA.

3.- Kamioiak, traktoreak, atoiak, kamionetak, furgonetak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, 1.000 kg-tik gorako tonelajeaz. Ibilgailu bakoitzak: Garabiaren fakturaren arabera (gutxienez 8.000 PTA).

4.- Aurreko hiru zenbaki-atal horiek aipatzen dituzten operazioak hasi besterik egin ez direnean, ibilgailua eraman barik, gidaria edo pertsona baimenduna agertu delako edo dagozkion neurriak hartu dituelako, 1 eta 2. ataletan aipatu diren tarifa kuotak %50 murriztuko dira.

5.- Eraman beharreko ibilgailuaren ezaugarriak direla-eta handik hartu eta eramateko baliabide egokirik ez badu Udalak, zerbitzua kontratatzeak sortzen dituen gastuetan oinarriturik kalkulatu da kuota.

B.- Eramandako ibilgailuak auto biltegian utzi eta zaintzeagatik, ibilgailuak auto biltegian utzi eta zaintzeari dagozkion kuotekin osatuko da "A" tarifa, hura jaso zenetik gidariak edo jabeek haiek eramatera joan gabe berrogeita zortzi ordu igaroz gero.

Hauxe izango da aipatu kuoten zenbatekoa:

1.- Bizikletak, motozikletak, trizikloak, motogurdiak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, eguneko edo frakzioko: 250 PTA./día.

2.- Turismo automobilak, furgonetak, kamionetak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, 1.000 kg. arteko tonelajeaz, eguneko edo frakzioko: 1.000 PTA/eguneko

3.- Kamioiak, traktoreak, atoiak, kamionetak, furgonetak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, 1.000 kg-tik gorako tonelajeaz, eguneko edo frakzioko: 2.000 PTA./eguneko

C.- Lehen aipatu diren tarifak, ibilgailuak jaso nahiz uzteari buruz, urtero eguneratuko dira Udal Ordenantza Fiskaletan.

VI.- ORDAINTZEKO ERA

6. Artikulua.

Diharduen udaltzainari ordainduko zaizkio eskubide horiek edo hartarako auto biltegian jarri den langileari, dagokion ordainagiriaz, eta ezinbesteko baldintza izango da ibilgailuak itzultzeko, edo -hala badagokio- hasi besterik egin diren operazioak bertan bera uzteko.

VII.- ERREGULAZIO OROKORRAK

7. Artikulua.

Ordenantza honek ezartzen duen eskubide ordainarazteak ez du salbuesten zirkulazio arauak hausteagatik egoki diren santzioak edo isunak ordaintzetik.

8. Artikulua.

Bide publikotik eraman eta hartarako jarritako lekuetan utzi ostean, jabeek hartarako jarritako epean jaso ezean ibilgailuak, egin behar diren jakinarazpenak egin eta gero, bertan bera utzitako automobilak jaso eta uztea arautzen duen 1974ko otsailaren 24ko Aginduak ezarritako moduan egingo da.

VIII.- ZIGORTZEKO PROZEDURA

9. Artikulua.

Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasun gaietan Zigortzeko Prozedura arautzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuarekin eta haren aldaketekin bat tramitatuko dira Ordenantza honekin lotutako arau-hausteengatik hasi behar diren zigor prozedurak.

IX.- IRAUNALDIA

10. Artikulua.

Udalak behin betiko onartu eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70. artikuluan, 65.2 artikuluari dagokionez, adierazitako epea igaro ostean sortuko du eragina Ordenantza honek.